# Haurrak eta nerabeak babesteko protokoloa,

## Bizkaiko aisialdi hezigarriko espazioetan lan egiten duten erakundeei zuzenduta

2025



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Protokolo hau egin da Bizkaiko aisialdi hezigarriaren arloan lan egiten duten pertsonei eta erakundeei haurrentzako eta nerabeentzako gune seguruak eraikitzen laguntzeko.

Hori dela eta, bertan zenbait gako eta tresna aurkituko dituzu, aisialdi hezigarrian haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuak detektatzeko eta, hala denean, kasu horiei aurre egiteko.

Segidan, labur azalduko dizugu zer aurkituko duzun protokolo honetan, zure erakundean egiten duzun lanean erabili ahal izateko.

Hasieran printzipioen deklarazioa jaso da, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak haurrak eta nerabeak babestearen eta haiei tratu ona ematearen alde egin duen apustuaren azalpena, bai eta jarduketa gidatzeko ikuspegiak eta gakoak ere.

Segidan, aisialdi hezigarriaren ezaugarrien gaineko azalpen laburra jaso dugu, bai eta protokolo honen aplikazio-irismenaren gainekoa ere. Dakizun bezala, protokolo honek ezaugarri zehatzak ditu, haurrekin eta nerabeekin egiten diren beste arlo batzuekin erkatuta.

Protokoloa zehaztu eta gero, kontuan hartu behar ditugun araudiak aurkituko dituzu, baita estekak ere, nahi izanez gero, haietako bat sakonago irakurri ahal izateko.

Kontzeptuen esparruan hainbat termino aurkituko dituzu, eta lagungarriak izango dira ingurune seguruak sortzeko gakoak ulertzeko. Segidan, proposamen txiki bat duzu, eta bertan zenbait prebentzio-neurri eta tresna jaso ditugu, indarkeriaren aurkako lanean lagungarriak izango direlakoan. Atal horretan eranskinak ere jaso ditugu. Zuren erakundean erabili ahalko dituzu, eta, behar izanez gero, egokitu ere.

«Jarduketa-prozedurak» lantzen diren atalean urratsez urrats azaltzen da nola jokatu haurren eta nerabeen aurkako kasu bat aurkituz gero (kasu hori nola detektatu, norekin hitz egin, epeak...).

Behin protokoloa onartuta, protokoloa egoeraren arabera moldatu behar da, eta hurrengo puntuan horixe bera azaltzen da.

Amaitzeko, eranskinak jaso baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiak komunikazioaren, sentsibilizazioaren eta protokolo hau erabiltzearen arloetan hartu dituen konpromisoak aurkituko dituzu, baita zure erakundean hartu ahal dituzuen konpromiso batzuen proposamena ere.

Espero dugu protokolo hau lagungarria izatea. Hala, guztion artean, Bizkaiko aisialdi hezigarri segurua osatuko dugu, espazio horretan ikasi, hazi eta gozatu nahi dutenentzat.

# Aurkibidea

1. Printzipioen adierazpena ........ 6

2. Aplikazio-eremua ........ 10

3. Aplikatu behar den araudia ........ 12

4. Kontzeptu-esparrua ........ 14

5. Prebentzio-neurriak ........ 22

6. Jarduteko prozedurak ........ 26

7. Protokoloaren ebaluazioa eta jarraipena ........ 32

8. Komunikazioa eta hedapena. ........ 34

9. Eranskinak ........ 36
   a. Protokolo hau erabiltzeko adierazpena
   b. Arrisku-mapa eta arriskuak prebenitzeko plana
   c. Jokabide Kodearen eredua
   d. Fluxugramak
   e. Intzidentziak komunikatzeko edota erregistratzeko eredua
   f. Baliabideak



# 1. Printzipioen adierazpena

*Erakundeok adingabeen ongizatea ziurtatzen duen gizartea eraikitzeko ardura daukagu.*

*Bizkaiko Foru Aldundian haurrak eta nerabeak babesteko eta zaintzeko legeak, arauak eta gomendioak bete behar ditugu, eta adingabeen eta nerabeen babesa gure politiken ardatz nagusian jartzeko konpromisoa bete behar dugu.*

Haurrei eta nerabeei tratu ona emateko osatu dugun proposamenean funtsezko ikuspegi batzuk jaso ditugu.

- **Eskubideen gaineko ikuspegia**, Haurren eta Nerabeen Legean jaso den bezala. Adingabeak subjektu parte-hartzailetzat hartzean datza, bai eta beren familiaren barruan eta parte hartzen duten komunitatean betetzen duten eginkizunari protagonismo handiagoa ematean ere. Gizartea, eta, bereziki, haurrekin eta nerabeekin zerikusia duten gaiak modu aktiboan eraikitzeko subjektu legitimotzat hartu behar ditugu haurrak eta nerabeak.

- **Prebentzio-ikuspegia**, ingurune seguruak eraikitzearen aldeko apustua baita, indarkeriaren sustraiei eta kausei erreparatuta. Prebentzioa emateko, kasuak hautemateko eta erreparazioa emateko

neurri osoak bilatu behar dira. Gure ekintza-proposamenetan epe luzeko ikuspegia bilatu behar dugu, bai eta iraunkortasuna ere. Halaber, ziurtatu behar da haur eta nerabeen bigarren biktimizatzerik ez gertatzea.

- **Zeharkako ikuspegi osoa**, begirada holistikotik. Adingabeekin modu integralean lan egin behar da, eta beren eskubide guztiak bermatu behar dira beren bizitzako esparru guztietan.

- **Genero-ikuspegia** zeharka txertatu behar da protokoloa diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko fase guztietan. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Legea oinarritzat hartuko dugu, eta genero-indarkeriari modu espezifikoan erreparatuko diogu, indarkeria mota horrek haurrei eta nerabeei ere eragiten baitie. Horrekin batera, jada erabiltzen diren protokoloak baliatu behar dira.

  Era berean, bermatu egin behar da dokumentu guztietan hizkuntza eta irudi sexistak ez erabiltzea eta pertsona guztientzat egokiak diren komunikazio-guneak sortzen laguntzea.

- **Inklusio-ikuspegia**, kulturartekotasunari, desgaitasunari, sexu-aniztasunari eta generoari bereziki erreparatuta. Aniztasuna ikuspegi zabalagotik aitortu behar da, eta

- Haur eta nerabe bakoitzaren garapenaren eta bilakaeraren ezaugarri bereziak kontuan hartu behar dira. Horrez gain, beren garapen pertsonalean, prozesuetan eta prozeduretan izaten dituzten premia bereziak arretaz zaindu behar dira.

  Era berean, protokoloa ikuspegi intersekzionaletik aplikatu behar da, eta kontuan hartu da generoa eta diskriminazioari lotutako dimentsio batzuk nola gurutzatzen diren (adibidez, jatorri etnikoa, gizarteklasea edo dibertsitate funtzionala).

  Horrez gain, ziurtatu egin behar da protokoloak lagungarriak izatea estereotipoak desmuntatzeko eta harreman paritarioak sustatzeko.

- **Pertsonak ardatz nagusian jartzen dituen arretaren eredua eta ikuspegia izatea**. Ildo horretatik, aisialdi hezigarriko programek eta jarduerek hartzaileei arreta integrala, parte-hartzailea eta pertsonalizatua emango diete, eta, bereziki, haurrei eta nerabeei, hala dagokionean.

- **Ardura bakarreko ikuspegia**. Bizkaiko Foru Aldundia inplikatuko da, eta konpromisoa hartuko du haur eta nerabe guztien eskubideak garatzeko eta benetan baliatzen direla bermatzeko, bai eta aisialdi hezigarrian lan egiten duten erakunde eta eragileei laguntzeko ere.

- **Gurasotasun positiboa edo gurasotasunaren erabilera egokia** bermatzeko ikuspegia; horretarako, neurriak hartuko dira gurasoen edo lege-tutoreen portaera egokia bermatzeko. Horren oinarria adingabearen interes gorena izango da, adingabea ingurune afektibo eta indarkeriarik gabean haztea bermatzeko. Horretan, eskubideen eta betebeharren gaineko hezkuntza ere txertatuko da.

  Adingabearen gaitasunen garapena sustatuko da, eta aitorpena eta orientazioa emango zaizkio, baita ordena guztietan garatzeko aukera ere.

Haurrei eta nerabeei tratu ona emateko osatu dugun protokoloaren proposamenean funtsezko lau printzipio jaso ditugu:

## Adingabearen interes gorena

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan eta EAEko Haurren eta Nerabeen Legean jaso den bezala.

Adingabeak eskubidea du bere interes onenak ebaluatuak izateko, berari eragiten dion neurri bat hartzen denean; eta, bestelako interesik izanez gero, interes horiek irtenbidea aurkitzeko prozesuan kontuan hartzeko. Beti aukeratu behar da adingabearen interesei hobekien erantzuten diena (baina horrek ez du zertan beti bat etorri adingabeak nahi duenarekin).

Helburua adingabearen eskubideen erabateko errespetu efektiboa bermatzea da, baita adingabearen garapen integrala ere.

## Koordinazioa eta sareko lana

Beste eragile batzuekin eta familiekin koordinazioa eta sare-lana txertatzea eta edozein prozesuren funtsezko zatitzat hartzea prebentzioaren eta babesaren arloan haurren eta nerabeen babesa bultzatzeko.

Diziplina anitzeko eta diziplina arteko lana egitea zainduko da, administrazioaren, aisialdi hezigarriko erakunde eta eragileen, familien eta haurrei eta nerabeei laguntzeko profesionalen laguntzarekin batera.

## Haurren eta nerabeen parte hartzea eta protagonismoa

Adingabea gizartearen eragilea da; beraz, eskubidea du informazio egokia jasotzeko, ideiak behar bezala osatzeko eta adierazteko, bere iritzia emateko eta haren iritzia entzuna izateko. Horrez gain, errespetua eta aintzatespena behar ditu, eta badauka eragingarria izateko eskubidea ere.

Haurrek eta nerabeek protagonistak izan behar dute, indarkeria prebenitzeko eta indarkeriaren aurrean nola jardun jakiteko planak egiten eta garatzen direnean; horretarako, parte-hartze aktiboa, entzutea, informazioa sozializatzea, hizkuntza egokitzea eta horretarako espazioak erabilgarri izatea sustatu behar da.

## Haurrei eta nerabeei babes integrala eta tratu ona ematea

Haur eta nerabe guztiek eskubidea dute haren zaintzaren erantzuleak diren helduek haiei ingurune seguru eta babeslea bermatzeko, haurrek eta nerabeek erabateko garapena izan dezaten eta eskubideak guztiz balia ditzaten, eta horren barne hartzen da inolako indarkeriarik ez jasotzea.

Tratu onak honako printzipio hauek sustatzen ditu era aktiboan: elkarrekiko errespetua, gizakiaren duintasuna, bizikidetza demokratikoa, gatazken konponbide baketsua, legearen babes bera jasotzeko eskubidea, aukeren berdintasuna eta haurren eta nerabeen diskriminazioaren debekua.

Horrez gain, Haurrei eta Nerabeei Babesa eta Tratu Ona emateko protokoloaren proposamenean zenbait aldagai jaso ditugu, beharrezkotzat jotzen ditugulako:

## Erantzun eraginkorrak

Adingabeekin ohiko harremana duten pertsona guztiek ezagutu beharko dituzte haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuetan erabili behar dituzten protokoloak eta jarduteko prozedurak. Jarduketa horiek berehalakoak eta proportzionatuak izan beharko dute, biktima bigarren aldiz biktima egitea edota erantzun okerraren ondoriozko kalte psikologiko gehiago ez eragiteko. Eta jarduketa horietan legeak ezarritako administrazio-erregulazio onaren printzipioak beteko dira (proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta koordinazioa).

## Komunikazioa eta jakinarazpenak

Kontuan hartu behar da haurrak eta nerabeak zaintzen dituzten langile profesionalek komunikatzeko betebehar orokorra eta betebehar kualifikatua dituztela. Horretarako, sentsibilizazioa eta prestakuntza beharko dira, bai eta hainbat eragilerentzako eta komunitate osoarentzako espazioak eta tresnak ematea ere.

## Datuen konfidentzialtasuna eta babesa

Jarduketa guztiak erregistratu behar dira, eta zuzeneko konpetentzia dutenek baino ezin izango dituzte eskuratu. Parte hartzen duten pertsonen identitatea babestu behar da haien eskubideak bermatzeko eta adingabea zein parte hartzen duten pertsonen ingurune soziala eta senideak ere babesteko.

Indarkeriari, parte hartzen duten pertsonei eta gidalerroak aplikatzen ari diren pertsona guztiei lotuta egiten diren komunikazio guztiak konfidentzialtasun-printzipioaren mende daude.

## Sentsibilizazioa eta prestakuntza

Haurren eta nerabeen indarkeria prebenitzen eta haien aurkako babesa ematen parte hartzen duten pertsona guztien sentsibilizazioa eta prestakuntza bermatu behar da. Esku-hartze egokia bermatze aldera, prozeduretan parte hartzen duten pertsona guztiek gaiari lotutako sentsibilizazioa izan behar dute, eta gutxieneko prestakuntza espezifikoa izan behar dute indarkeriaren biktimei laguntza emateko eta haurrei eta nerabeei tratu ona emateko; horrez gain, horri lotutako protokoloak eta prozedurak ezagutu beharko dituzte.



# 2. Aplikazio-eremua

Haurren eta Nerabeen Legearen 35. artikuluan hauxe ezartzen da: «*Pertsona adingabeek* ***atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako eskubidea dute, aisialdi hezigarria barne,*** *ingurune irisgarri, seguru, osasungarri eta inklusiboetan hezteko, osorik garatzeko eta sozializatzeko funtsezko elementu gisa*».

Gainera, hauxe gaineratzen da: «***aisialdi*** *hezigarritzat hartzen da garapen integralari laguntzen dioten aisialdiko jardueren multzoa; jarduera horiek adingabeak parte hartzeko ohituretan, ingurumena errespetatzeko ohituretan edo konpromiso, elkartasun eta gizarte-inklusiorako balioetan heziko dituzte, eta pertsona adingabeei berdinen arteko harremanak eta gizarte-gaitasuneko trebetasunez jabetzen lagunduko diete*».

Hori dela eta, asti eta aisialdi hezigarria gune pribilegiatua da haurrentzat eta nerabeentzat, eta han ematen dute denbora handia. Izan ere, leku ezin hobea da haur eta nerabeak hazteko eta garatzeko; beraz, ezinbestekoa da espazio horietako dinamikak eta harremanak ere ezin hobeak izatea.

Aisialdi hezigarriko espazioetan adingabeek gustura sentitu behar dute, konfiantzaz. Espazio horietan aske sentitu behar dute adierazteko,

eta beren burua zein lagunena zaintzen eta gainerako pertsonak errespetatzen ikasi behar dute. Gune eta espazio horietan harreman pertsonalak eta afektiboak eraikitzen dituzte, eta eragin handia izaten dute pertsona baten garapenean.

Gune horiek hainbat formatu eta ezaugarri izan ditzakete, eta garrantzitsua da hori kontuan hartzea eta ahalik eta erantzun egokiena ematea, bertan daudenentzat ingurune seguruak direla bermatzeko.

Protokolo hau pentsatu da Bizkaiko lurraldean langile boluntarioekin zein kontratatuekin lan egiten duten aisialdi hezigarriko erakunde eta entitateentzat.

Ikasturtean jarduerak eta programak antolatuko dituzte, eta baliteke haietako batzuk oporretan, asteburuetan eta antzekoetan izatea. Oro har, jarduеretan 3 eta 18 urte artekoek parte hartzen dute.

Halaber, baliteke batzuetan gaua jardueretako egoitzetan ematea, aterpe edo kanpin-denda batean. Espazio horietan batzuetan gosaldu, edo hamaiketakoa zein askaria hartu edota afaldu egiten da.

Batzuetan intimitateko uneak osatzen dira: esaterako, dutxetan, komunetan eta abarretan.

Askotan premia bereziak dituzten haurrei eta nerabeei arreta ematen zaie, eta gerta daiteke egoera kalteberetan edo babesgabetasunean egoteko arriskuan egotea.

Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiak protokolo hau egin du eremu horretan lan egiten dutenentzat erreferentzia izan dadin. Asmoa ingurune seguruak sortzea, indarkeria ahalik eta lasterren detektatzea eta kasu horietan eraginkortasunez erantzutea da.



# 3. Aplikatu behar den araudia

Haurrak eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategiak azpimarratzen digu haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka giza eskubideen arloko betebeharra dela, eta, haurren eta nerabeen eskubideak sustatuko badira, funtsezkoa dela haien giza duintasunaren eta osotasun fisiko eta psikologikoaren errespetua bermatzea eta sustatzea.

Gaur egun, haurren eta nerabeen eskubideari eta babesari buruzko esparru arautzailea dugu Estatuan, Europan eta nazioartean, eta badaude kontuan hartu behar diren lege eta gomendio batzuk:

- **Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (1989koa)**

Haurrek eta nerabeek eskubideak dituztela azpimarratzen du, eta estatuei nabarmentzen die eskubide horiek bermatzeko betebeharra dutela, Estatuak eta gainerako pertsonek haurrak errespetatu ditzaten.
*https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/convention-rights-child*

**- Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko lege organikoa** (LOPIVI 2021)

Paradigma aldatzen du, eta prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, jarduketen eta erreparazioen ikuspegitik egoera horiei modu integralean heltzea proposatzen du. Horrez gain, zenbait aldaketa proposatzen ditu haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko.

**- Haur eta Nerabeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia** (Eusko Jaurlaritza, 2022-2025).

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Lege Organikoa EAEn aplikatzeko lau lan-ardatz proposatzen ditu: eskubideen sustapena eta prebentzioa, hautemate goiztiarra eta komunikazioa, arreta eta erreparazioa eta lankidetza eta ezagutzaren kudeaketa.
*https://www.euskadi.eus/estrategia-vasca-contra-la-violencia-hacia-la-infancia-y-la-adolescencia-2022-2025/web01-a2zeukes/es/*

**Haurren eta Nerabeen Legea** (Eusko Jaurlaritza, 2024).

Legeak haurrei eta nerabeei lotutako politikoak argitzen eta indartzen ditu, eta erabakien ardatz nagusian haur eta nerabeen interes gorena jartzen du. Horren ondorioz, bermatu egin behar da ebazpen hori haien ongizatearen alde hartzen dela, haurren eta nerabeen segurtasuna eta garapen osoa ziurtatuta. Horrez gain, politika publiko guztien ardatz nagusian haurren eta nerabeen eskubideen babesa eta sustapena jartzen ditu.
*https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2401066a.pdf*

**- 2030 Agendan bildutako Garapen Jasangarrirako Helburuak** (GJH, 2030).

Helburuek haurren eta nerabeen eskubideak ere sustatzen dituzte, eta aukera ematen dute haur guztiak babesteko, inor atzean ez uzteko kontsignari jarraituta.
*https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/*

# 4. Kontzeptu-esparrua



Garrantzitsutzat jotzen dugu zenbait kontzeptu identifikatzea, argitzea eta bateratzea. Kontzeptu horiek lagungarriak izango dira hizpidetzat hartu dugun gaia ulertzeko eta haurrei eta nerabeei babesa eta tratu ona emateko zenbait erreferentzia-termino egoki erabiltzeko.

| | | |
|---|---|---|
| **Adingabeak** |  | Adingabeak dira Kode Zibilean ezarritako adin-nagusitasunera iritsi ez direnak, baldin eta emantzipaturik ez badaude, edo aplikatzekoa zaien legean ezarritakoaren ondorioz adin-nagusitasunera iritsi ez badira. Zigor-legearekin gatazkan dauden pertsonei buruzko xedapenen kasuan, joko da adingabetasuna Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoan ezarritakoa dela. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 6. artikulua). |
| **Haurrak** |  | Haurtzaroan dauden pertsonak, hau da, jaiotzetik hamabi urtera bitarteko bizitza-aldian daudenak. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 6. artikulua). |
| **Nerabeak** |  | Nerabezaroan dauden pertsonak, hau da, hamahiru urtetik legeak ezarritako adin-nagusitasunera edo emantzipaziora bitarteko bizitza-aldian daudenak. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 6. artikulua). |
| **Tratu ona** |  | Haurren eta nerabeen funtsezko eskubideak betez, tratu onak honako printzipio hauek sustatzen ditu era aktiboan: elkarrekiko errespetua, gizakiaren duintasuna, bizikidetza demokratikoa, gatazken konponbide baketsua, legearen babes bera jasotzeko eskubidea, aukeren berdintasuna eta haurren eta nerabeen diskriminazioaren debekua. (Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean modu integralean babesteko Lege Organikoaren 1.3 art.). |
| **Ingurune segurua** |  | Ingurune segurua da haurren eskubideak errespetatzen dituena eta giro fisiko, psikologiko eta sozial babeslea sustatzen duena, ingurune digitala barne. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 38. artikulua). |

## Indarkeria



Indarkeriatzat joko da heldu batek edo pertsona adingabe batek egindako ekintza, ez-egite edo zabarkeriazko tratu oro, baldin eta adingabeak beren eskubideez eta ongizateaz gabetzen baditu, eta, betiere, haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, edonola eta edozeren bidez eginda ere, harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala, eta noizbehinka, eskuarki nahiz modu jarraituan, familia barruan nahiz kanpoan, gertatuta ere.

Edonola ere, indarkeriatzat joko dira tratu txar fisikoa edo psikologikoa; zigor fisikoak, umiliagarriak edo laidogarriak; arduragabekeria edo zabarkeriazko tratua; mehatxuak, irainak eta kalumniak; esplotazioa; sexu-indarkeria; sexu-erasoak eta -abusuak; ustelkeria; prostituzioa; sexu-esplotazioa, sexu-jazarpena, eskola-jazarpena eta ziberjazarpena; emakumeen genitalen mutilazioa; gizakien salerosketa, edozein helburutarako izanik ere; haur-ezkontza; haur-pornografia eta onartu edo eskatu gabe pornografia atzitzea; genero-indarkeria; emakumeen kontrako indarkeria matxista; gorroto-delituak; sexu-estortsioa; datu pribatuak jendaurrean zabaltzea, sexu-indarkeriako datuak barne; bai eta haien familia-eremuan indarkeriazko edozein portaera izatea ere.(EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 11. artikulua).

**Sexu-indarkeria**



Sexu-indarkeriatzat jotzen da sexu-izaerako edozein ekintza onartu gabea, edo bizitza sexualaren garapen librea baldintzatzen duena edozein eremu publiko edo pribatutan, eremu digitala barne. Nolanahi ere, sexu-indarkeriatzat hartuko dira Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren II. liburuko VIII. tituluan jasotzen diren delituak, emakumeen mutilazio genitala, ezkontza behartua, sexu-konnotaziodun jazarpena eta sexu-esplotazioa helburu duen gisa salerosketa. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 11.3. artikulua).

**Indarkeria fisikoa**



Indarkeria fisikotzat jotzen da haur edo nerabe bati gorputzean kalte egiten dion indarkeria oro. (Guía Ver para proteger, UNICEF) Kolpeen, ebakien, erreduren, mutilazioen, astinduen, jipoitzeen, pozoiduren, estupefazienteen eta itotzeen bidez egiten da, besteak beste.

**Indarkeria psikologikoa**



Haur edo nerabe bati dimentsio psikologikoetan kalte egiten dion indarkeria oro. Azpimarratzekoa da edozein indarkeria-motak kalte psikologikoa eragiten duela (indarkeria fisikoak, sexu-indarkeriak eta zabarkeriak haurraren edo nerabearen garapen emozionalari eragiten diote), baina bada psikologikoa soilik den indarkeria. Hitzez, ekintzen bidez edo hizkuntzaren bidez eragin daiteke, baita adingabearen presentzia ukatuz edo gutxietsiz ere. (Guía Ver para proteger, UNICEF)

**Arduragabekeria**



Arduragabekeriazko tratutzat hartzen da haurraren premia fisiko eta psikologikoei jaramonik ez egitea, arriskutik ez babestea eta zerbitzu medikoak, jaiotza inskribatzekoak eta bestelakoak ez ematea, arreta emateaz arduratzen diren pertsonek hori egiteko bitartekoak, ezagutza eta zerbitzuak dituztenean. (Haurren Eskubideen Batzordea, 13. Ohar Orokorra (2011), 9. or.). Arduragabekeria, batez ere, ekintzarik eza da, hau da, ekiteko boterea ez erabiltzea haur edo nerabe bat babesteko eta zaintzeko. (Guía Ver para proteger, UNICEF)

**Berdinen arteko indarkeria**



Adingabeen arteko zenbait indarkeria mota gerta daiteke: bikotekidearen aurkako indarkeria matxista; neba-arreben aurkako indarkeria, seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria-egoeretan; sexu-abusuak... Hala ere, berdinen arteko indarkeria edo tratu txarrak epigrafean azken hamarkadetan egindako azterlan gehienetan eskolan gertatzen denari erreparatu diote, eta indarkeria mota hori jazarpena edo bullyinga da, batik bat. Horren arabera, 18 urtetik beherako pertsona batek edo pertsona talde batek antzeko adina duen beste bati nahita eginiko ekintzak dira, eta mina, beldurra edo estutasuna sorrarazteko helburuz egiten dute, harreman asimetriko batean, erasotzailearen eta biktimaren arteko botere desberdintasuna tarteko dela; horrez gain, errepikariak eta errepikakorrak izaten dira. Indarkeria horrek zenbait mota ditu: tratu txarrak jasaten dituen pertsonaren aurrean edo bertan ez dagoenean geratzen diren ekintzak izan daitezke; hitzezko gaitzespenaren, eraso fisikoaren edo gizarte-bazterketaren bidez egin daitezke; pertsonaren aurkako zuzeneko ekintzak egin daitezke, edo zeharka, haren objektu pertsonalei edo senideei eta lagunei eraso eginez. Mehatxuak, beldurra eta abar tartean egon daitezke. Hainbat egoeratan gerta daitezke, hala nola eskola-eremuan, kirol-klubetan, kalean... Horrez gain, Interneten ere bullying motak egon daitezke, eta ziberjazarpena edo ziberbullyinga esaten diete. (Haurren eta Nerabeen Kontrako Indarkeriari Aurre egiteko Euskal Estrategia)

| | | |
|---|---|---|
| **Sustapena** |  | Sustapentzat jotzen da honako helburu hauek lortzeko politika, estrategia eta jarduketa multzoa:<br>Pertsona adingabeei aitortutako eskubideen ezagutza, errespetua eta egikaritze eraginkorra bultzatzea eta sustatzea, bai eta haien eginbeharrak eta erantzukizunak beren gain hartzea ere.<br>Gizarte osoa sentsibilizatzea eskubide eta eginbehar horien eta haur eta nerabeen beharren inguruan.<br>Lagundu egitea pertsona adingabeei aitortutako eskubideak gauzatzeko baldintza egokiak osatzen eta adingabeen garapen osoa eta harmonikoa lortzen. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 8. artikulua). |
| **Prebentzioa** |  | Prebentziotzat joko da pertsona adingabeen garapen fisikoa eta psikologikoa zaildu edo kaltetu dezaketen testuinguruak, egoerak edo jokaerak saihesteko eta, hasieratik hautemanez gero, haien larritasuna edo iraupena mugatzeko jarduketa-eremu guztietan egituratutako politika, estrategia eta jarduketa multzoa. Nolanahi ere, garapen fisiko eta psikologikoak barnean hartzen ditu arlo emozionala, kognitiboa, soziala eta afektibosexuala. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 9. artikulua). |

| | | |
|---|---|---|
| **Babesa** |  | Pertsona adingabeen kontrako indarkeriaren aurkako babesa osatzen dute prebentziotik hasi eta haur edo nerabe bat edozein indarkeria-motaren biktima den edo hura izateko arriskuan dagoen kasura arte garatu behar diren euskal administrazio publikoen politika, prozedura eta jarduketa guztiek, indarkeria hori gertatzen den eremua edozein dela ere, dela eskolakoa, komunitate-mailakoa, kirolekoa, familiakoa edo bestelakoa. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 11. artikulua). |
| **Aisialdi hezigarria** |  | Aisialdi hezigarritzat hartzen da garapen integralari laguntzen dioten aisialdiko jardueren multzoa; jarduera horiek adingabeak parte hartzeko ohituretan, ingurumena errespetatzeko ohituretan edo konpromiso, elkartasun eta gizarte-inklusiorako balioetan heziko dituzte, eta pertsona adingabeei berdinen arteko harremanak eta gizarte-gaitasuneko trebetasunez jabetzen lagunduko diete. (EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 35. artikulua). |
| **Jarduketa-protokoloa** |  | Dokumentu horretan jarraibideak ezartzen dira, eta inguruabar jakin batzuetan bete behar dira. Besteak beste, jokatzeko moduarekin batera, informazio garrantzitsua, nori helarazi behar zaion, erakundeko funtsezko langileek nola jardungo duten eta abar ezartzen da.<br>Egoera kritiko jakin batzuetan jarduteko modua bertako pertsonen nahierara erabakitzea oztopatzen du. Egoera horiek gertatzen direnean, pertsona horiek jarduteko prozedurak ezagutzen ez badituzte, baliteke, horren ondorioz, erantzuleak izatea edota erakundeari edo hirugarrenei kalteak eragitea. (Grupo Ático 34) |

**Arrisku-mapa eta arriskuak prebenitzeko plana**



Prebentzio-tresna da, eta balizko babesgabetasun-arriskuak (erakundean gertatzen diren arrisku fisikoak zein emozionalak) detektatzen laguntzen digu. Asmoa erakundeko pertsonak babestea da, pertsona horiek betetzen duten eginkizuna, programa edo zerbitzua edozein izanda ere. Prebentzio-planek lagunduko digute erantzun egokia eta eraginkorra ematen, benetako edo balizko arriskuen aurrean.
Edonola ere, kontuan hartu behar da arriskuen sorburuak honako hauek izan daitezkeela: pertsonak, prozedurak, gure jardueraren gizarte-ingurunea, egoera edo gure erakundea bera; eta egiten dugunagatik, egiten ez dugunagatik edo egiten ez dakigunagatik sortzen dira. (Guía Elementos de seguridad, TRATU ON).

**Jokabide-kodea**



Dokumentu horretan biltzen dira haur eta nerabeekiko harremanetan garatu behar diren portaera egokiak, baita kaltegarriak izan daitezkeen portaerak ere. Haurrei eta nerabeei arreta ematen dieten erakunde guztiek dokumentu hori eduki behar dute, eta profesional guztiek sinatu behar dute. Sinaduraren bidez, konpromisoa hartzen dute dokumentu horretan bildutako arauak eta estiloak betetzeko. (Glosario amigable de la Estrategia de Erradicación de la Violencia hacia la Infancia y Adolescencia. Espainiako Gobernua).



# 5. Prebentzio-neurriak

## Arrisku-mapa eta arriskuak prebenitzeko plana

Adingabeekin lan egiten den gizarte- eta hezkuntza-espazioetan hurbileko harremanak, konfiantzazkoak eta abar ezartzen dira. Jarduera edo programa arautuak izaten dira, baina eremuaren ezaugarri bereziak ere badaude, non une informalak, talde txikiagoak edo intimitate-egoerak ere gerta baitaitezke (adibidez, garbiketa pertsonalean, arropa aldatzean, gaua ematean...). Espazio batzuek zein besteek ingurune seguruak izan behar dute haur eta nerabeentzat.

Arrisku-mapak eta prebentzio-planak lagungarriak izan daitezke jarduera baten arriskuak baloratzeko eta arriskuak txikiagotzeko neurriak zehazteko. Prebentzio-tresnak dira, eta balizko babesgabetasun-arriskuak (erakundean eta jardueretan gerta daitezkeen arrisku fisikoak zein emozionalak) detektatzen laguntzen digute.

Aisialdi hezigarriko programen eta jardueren ezaugarri bereziak direla eta, ondo eta arreta handiz prestatu behar dira, arriskuak eta balizko ezusteak ondo aztertuta.

Horretan kontuan hartu behar da arriskuen sorburuak hauexek izan daitezkeela: pertsonak, prozedurak, jardueraren ingurune soziala, koiuntura edota gure erakundea bera. **Prebentzio-planek lagunduko digute arriskuen aurrean erantzun egokia eta eraginkorra ematen**. Izan ere, planen asmoa erakundeko pertsonak babestea da, pertsona horiek betetzen duten eginkizuna, programa edo zerbitzua edozein izanda ere.

Arriskuak prebenitzeko mapa eta plana osatzeko, honako urrats hauek egin behar ditugu:

**1) Espazioen eta jardueren azterketa.**

Nolakoak diren eta ingurune segurua (fisikoa eta emozionala) izateko baldintzak betetzen diren.

Balizko arriskuen sailkapena:

ARRISKU TXIKIA: Arrisku hori benetan gertatzea ez da oso litekeena, eta inpaktua txikiagoa izan liteke.
ARRISKU ERTAINA: Arrisku hori gertatzea oso litekeena da, eta inpaktua esanguratsua izan liteke.
ARRISKU HANDIA: Oso litekeena da arrisku hori gertatzea, eta eragina oso handia izan liteke.

**2) Zer neurri ezarri:**

**Zer arrisku kontrola ditzakegun eta zein ez? Zer neurri har ditzakegu eta hartuko ditugu? Zer arrisku hartuko dugu gure gain?** Zer arrisku ezin dut hartu nire gain, eta, hartara, haiei lotutako jarduera edo ekintza baztertuko dut? Kontuan hartu behar da mapa eta plana zenbat eta zehatzagoak izan, orduan eta txikiagoak izango direla arriskuak, edo behintzat minimizatuko ditugula.

**3) Arriskuak prebenitzeko planaren gauzatzea**

Baliabideak, denbora eta arduradunak esleitu behar dira. Inplikatuta dauden pertsona guztiei horren berri eta informazio egokia eman behar zaie (haurrak eta nerabeak barne).

**4) Arriskuen planaren jarraipena eta ebaluazioa**

Aldizka egin behar da, parte hartzen duten pertsona guztiak barne (haurrak eta nerabeak ere bai).

**B) eranskina:** *Eranskinetan txantiloi orokorra antolatu dugu arrisku-mapa eta arrisku horiei aurrea hartzeko mapa ere bai.*

## Jokabidearen kodeak

Aisialdi hezigarriaren eremua, non adingabeekin jarduten baita, espazio oso berezia da. Esku-hartzea egiten duten edo adingabeekin ohiko harremana izaten duten pertsonen eginkizuna funtsezkoa da, haurrak eta nerabeak hezteko, eta haurren eta nerabeen tratu ona emateko ere bai.

Jokabide kodeak ezartzen badira, errazago ulertzen da langile horien eginkizuna, zer espero den haiengandik (eta zer ez), eta erabakiak bizkorrago hartzen ere laguntzen du, portaeraren bat desegokia denean. Jokabide-kodea, horrenbestez, beste prebentzio-tresna bat da, eta beharrezkoa da ingurune seguruak eraikitzeko.

Gure erakundearen jokabide-kodea prestatzeko, kontuan hartu behar dugu gure erakundean zer jokabide onartu nahi ditugun, eta zein debekatu, edozein mota izanda ere. Horrez gain, baliteke haietako batzuk legez debekatuta egotea (Zigor Kodearen edo funtsezko eskubideak babesteko edozein araudiren bidez); eta baliteke beste batzuk ere debekatuta egotea, legearen aurkakoak izan ez arren, adingabea arriskuan jartzen dutelako.

**C) eranskina:** *Eranskinen atalean jokabide-kode bat jaso dugu, eta erreferentziatzat hartu ahalko da aisialdi hezigarriko erakundeetan.*

## Prestakuntza

Aisialdi hezigarriko erakunde guztietan lan egiten dutenek prestakuntza egokia eduki behar dute tratu ona eta behar den babesa bermatu ahal izateko.

Horrenbestez, aisialdi hezigarriko espazioetan lan egiten duten erakundeek etengabeko prestakuntza-planak eskaini behar dizkiete langile guztiei (boluntarioei zein kontratatutako langileei). Plan horietan, lanposturako beharrezkoa den prestakuntzaz gain, babesari eta tratu onari buruzko edukiak jaso behar dira, bai eta ingurune seguruak sortzearekin lotutako edukiak ere.

Prestakuntza horiek emateko, komeni da arloko adituen laguntza izatea, prestakuntzako planak garatzen lagunduko dutelako. Horrez gain, ebaluazio-tresnak ere ezarri behar dira, etengabeko hobekuntza bermatzeko eta egoera bakoitzaren arabera egokitzen jakiteko.

## Babes-ordezkariaren figura

EAEko Haurren eta Nerabeen Legearen 138. artikuluan ezartzen denaren arabera, aisialdi hezigarriko zentro eta antolakundeek **babes-ordezkariaren figura** izendatu beharko dute, eta pertsona adingabeek harengana jo ahal izango dute beren ezinegonak eta kezkak azaltzeko edo hari aditzera emateko zer indarkeria-egoera jasan, ikusi edo ezagutu duten.

Ordezkariari eskatutako eginkizunak, behintzat, honako hauek izango dira:

a) Bere burua erreferente nagusi modura **identifikatzea** langile, pertsona adingabe edo gurasoen aurrean edo, hala badagokio, tutore edo tutoretza-, harreragile- edo zaintzaile-ahalmenak dituztenen aurrean, **hari komunika dakizkion entitate, zentro edo antolakundean edo haren ingurunean haurren eta nerabeen kontra detektatzen diren indarkeria-kasuak,** eta garatu beharreko jarduketak eta hartu beharreko neurriak koordina ditzan.

b) Langileei **jakinaraztea eta zabaltzea edozein indarkeria-mota prebenitzeko eta indarkeria horietatik babesteko dauden protokoloak**, betiere protokolo horiek entitatean, zentroan edo antolakundean aplikatzekoak badira.

c) **Protokolo horiek betetzen direla ziurtatzea**, eta, bereziki, haurren edo nerabeen kontrako indarkeria-egoeraren bat detektatzen bada, **dagozkion komunikazioak egitea.**

d) Euskal administrazio publikoek onetsitako protokoloekin bat etorriz, gizarte-zerbitzu eskudunek **esku hartu behar duten kasuak koordinatzea** eta, beharrezkoa dela baloratuz gero, kasuan **kasuko agintariei informazioa ematea**, kalterik egin gabe legeak aurreikusitako kasuetan komunikatzeko eginbeharrari.

e) **Pertsona adingabeen datu pertsonalak bidegabe tratatzea ekar dezaketen egoeretan, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari berehala komunikatzea sustatzea.**

f) Pertsona adingabeen inguruko prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta babesari buruzko **prestakuntza-planak sustatzea** pertsona adingabeentzat eta gurasoentzat edo, hala badagokio, tutoreentzat edo tutoretza-, harreragile- edo zaintzaile-ahalmenak dituztenentzat. Lehentasuna emango zaio indarkeria-egoerak detektatzeko eta haiei erantzuteko trebetasunak eskuratzerako prestakuntzari.

g) **Pertsona** adingabeentzat **ahalik eta ongizaterik handiena ziurtatzeko neurriak sustatzea,** baita haiei **tratu ona emateko kultura** ere.

h) **Langile eta pertsona adingabeen artean gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodo alternatiboen erabilera sustatzea.**

i) **Kirol inklusiboa,** oro har**, sustatzea,** bai eta, orobat**, desgaitasunen bat edo zaurgarritasun berezi edo handiago bat duten pertsona adingabeekiko errespetua.**

j) **Segurtasuna gainbegiratzea langileak, profesionalak zein boluntarioak, kontratatzen direnean**, eta lege honen 314. artikuluan aipatzen diren betekizunak bete eta egiaztatzen diren ziurtatzea.



# 6. Jarduteko prozedurak

## Prebentzioa

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da tratu ona emateko guneak, indarkeriarik gabeak, non adingabeak eta hezitzaileak seguru sentitzen baitira. Prebentzioa lantzea gako da, jarduketen aurrean.

## Jardun-protokoloaren araberako urratsak: Fluxugrama

***d) Eranskina:** Eranskinen atalean irudi bat jaso dugu, handiago ikusteko.*

## Detekzioa edo identifikazioa

Prebentzioan irmoki lan egiten badugu ere, gaur egun indarkeria presente eta naturalizatuta dago gure gizartean, eta ez dugu ahaztu behar gurekin lan egiten duten haur eta nerabeak indarkeriaren biktimak izan daitezkeela. Horrenbestez, hurrengo urratsa indarkeria-kasuak detektatzea eta identifikatzea da.







Aisialdi hezigarriko espazioetan hiru indarkeria mota hauteman ditzakegu:

- Berdinen arteko indarkeria, biak adingabeak direnean.
- Goranzko indarkeria, adingabeak heldu bati egiten diona.
- Beheranzko indarkeria, heldu batek adingabeari egiten diona.
- Nork bere buruari eragiten dion indarkeria (autolesioak, nahasmendu barneratzaileak).

Kontuan hartu behar dugu aisialdi hezigarrian haurrekin eta nerabeekin lan egiten dugula, eta adingabeak indarkeriaren aurrean egoera kalteberan egon daitezkeela, hau da, baliteke helduen baldintza beretan ez egotea. Kasu horietan komeni da laguntza berezia ematea adinez nagusitasunaren arabera dagozkien protokoloetan.

Gainera, hainbat aukera daude indarkeria hautemateko:

- **Biktimak** babes-ordezkariari edo erreferentziako hezitzaileari **jakinarazten dio zer gertatu den**, edo salaketa egiteko kanal baten bitartez egiten du.
- **Erakundeko langileek gertaeraren berri ematen diote** babes-ordezkariari.
- **Pertsonaren batek babes-ordezkariari edo erreferentziako hezitzaileari jakinarazten dio zer gertatu den**, edo salaketa egiteko kanal bat erabiltzen du.
- **Babes-ordezkaria lekuan bertan jabetzen da** gertaeraz.

Komeni da «behaketa aktibo eta sistematikoa» egitea, hezkuntza-taldearen eguneroko lanaren barne. Horrek berekin ekartzen du langileek seinale goiztiarrak ikastea (jokabidearen aldaketak, uzkurtasuna, somatizazioa, zeharkako adierazpenak eta abar). Horrek jarduteko aukera ematen du, indarkeria modu esplizituan adierazi edo gertaeraren berri eman baino lehen.

Gainera, «gune segurua» edo «entzuteko gunea» ezarriko da haur eta nerabeentzat, eta bertan emozioen adierazpena eta konfiantza sustatuko dira. Horrek lagunduko du ezinegona edo indarkeria-egoerak modu informalean detektatzen, batez ere, adingabeak indarkeria bizitzen ari direla zehazteko gai ez direnean.

Edonola ere, protokolo berari jarraitu beharko zaio.

**Komunikatzeko eta salaketak egiteko kanalak**. Aurrez aurreko presentziarekin batera, erakundeek salaketak egiteko kanal bat erabilgarri izango dute webgunean.

**Bizkaiko Foru Aldundiaren komunikazio-kanala**. Horren bitartez, kasuen berri eman daiteke, eta honako bitarteko hauek erabilgarri daude:

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA, BULEGO-ORDUETAN (08:00-14:00)**

- ✓ **Gizarte Ekintzako Sailaren Hauurtzaro Zerbitzua**
  Ugasko bidea 3, 2. solairua. 48014 BILBO.
  Harremanetarako telefono-zenbakiak: 944 067 281, 944 067 270 eta 944 062 962.
  Helbide elektronikoa: *ume-infancia@bizkaia.eus*

**EGUNERO (14:00ETATIK AURRERA), ASTEBURUETAN ETA JAIEGUNETAN (24 ORDUETAN).**

- ✓ **Gizarte Larrialdietako Bilboko Zerbitzuak Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua**
  Telefono-zenbakia: 944 701 460

- ✓ **Gizarte Larrialdietako Zerbitzuak, Bizkaiko gainerako kasuetarako:**
  Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua
  Telefono-zenbakia: 944 025 050.

**Erakundeek aukeratuko duten kanala** (helbide elektronikoa, telefono-zenbakia eta abar).

## Babes-ordezkariari jakinaraztea

Kasuren bat hautematen bada, gure erakundeko, programako edo zerbitzuko babes-ordezkariari horren berri eman behar zaio.

Babes-ordezkariak prozesuan parte hartzen duten pertsonei lagun egingo die, eta protokoloaren urratsak zuzenduko ditu.

## Intzidentziak erregistratzea eta komunikatzea

Kasuren bat hautematen denean, dokumentu batean kasuari buruzko informazio erabilgarria jaso behar da. Dokumentu horri «Intzidentzien erregistroa», «Komunikazio-orria» edo «Intzidentzien jakinarazpena» deituko diogu. Komunikazio hori egiteko, kontuan hartu behar dugu **ez dugula ikertzeko edo epaitzeko lana egin behar**, baizik eta esaten digutenari buruzko datuak jaso. Prozesuan aurrera egin ahala, garrantzitsua da erregistro hori eguneratzea. Horrez gain, kontuan hartu behar dugu konfidentziala dela, eta bertan jasotzen diren datuak babestu behar direla.

**e) Eranskina:** *Baliabideak izeneko atalean fitxaren eredu bat jaso dugu komunikazioak edo jakinarazpenak egiteko.*

## Egoera aztertzea

Behin kasua identifikatuta, egoera aztertuko dugu. Egoera bakoitza ezberdina izango da, eta kasu batzuetan neurri drastikoak hartu beharko dira, eta, beste batzuetan, arriskuak birbideratu ahalko dira, eta jarraipena egin eta gidalerro batzuk emango dira egoera arautura itzultzeko.

# PRESAko protokoloa

**Egoera larria baldin bada**, eta adingabeak berehalako osasun-arreta behar badu, **dagokion ospitalera eramango dugu. Protokoloari jarraituko diogu, eta ospitaleko arduradunek eta agintari eskudunek adierazten dizkiguten urratsak ere beteko ditugu. Horrez gain, gure laguntza eskainiko diegu, zer edo zer behar izatekotan**.

**Egoera larria baldin bada, baina adingabeak berehalako arreta behar ez badu, egoera berehala jakinaraziko diegu** adingabearen familiari (adingabea arriskuan ez badago) eta agintari eskudunei. Honako hauek dira **agintari eskudunak**: Gizarte-zerbitzuak, adingabeen fiskaltza, polizia... **Eta protokoloa zein jakinarazitako urratsak beteko ditugu; horrez gain, zer edo zer behar badute, gure laguntza eskainiko diegu**.

Administrazio publiko bati zerbitzua ematen badiogu, arloko arduradunari protokoloaren berri emango diogu.

*Presako protokoloak berehala aktibatu behar dira.*

# Protokolo ARRUNTA

Egoera aztertzen dugunean, kontuan hartu behar ditugu familia, adingabea (hala dagokionean) eta hezitzailea, eta, Administrazio publiko bati emandako zerbitzua bada, arloko arduraduna ere bai.

Tartean adingabe bat baldin badago, **familia**ri egoeraren berri emango zaio, eta kontuan hartuko dira adingabearen babesa eta zaintza. **Gertaerak larriak izan baldin badira, eta familia ere inplikatuta baldin badago, edo adingabea arriskuan baldin badago, zuzenean joko dugu agintariengana,** eta haiek zuzenean familiari emango diote egoeraren berri.

Egoeran beste adingabe bat baldin badago (biktima ala erasotzailea izanda ere), adingabearen babes- eta zaintza-prozedura berari jarraituko zaio. Eta familiari horren berri emango zaio.

## Jakinarazpen hori egin ondoren, jokabidea birbideratu al da?:

Familiarekin egoera aztertzen badugu, baliteke egoera birbideratu ahal izatea edo baliteke egoeran esku hartze eta neurri handiagoak hartu behar izatea.

Bestela esanda, jakinarazpen hori eta azterketa horiek egin ondoren, bi erantzun jaso daitezke:

a) **Bai. Egoera birbideratzen da.** Elkarrizketan ikusten dugu arriskuak ez direla larriak, eta egoera birbideratu ahal dela, beraz, jarraipena eginda eta gidalerro batzuk emanda, egoera arautura itzuli ahal dela. Kasu horretan intzidentzien erregistroak eguneratu beharko dira, eskuragarri dauden datuekin, eta egindako estrategiak edo gomendatutako aholkuak beteko dira.

   Azpimarratu behar da jarraipena egin behar dela, nahiz eta egoera «konponduta» egon, laguntza emozionala eman behar dela, eta adingabearen premiei ere erantzun behar zaiela.

b) **Ez. Egoera eta arriskua konplexuak dira, eta esku hartze handiagoa egin behar da. Kasu horretan intzidentzien erregistroak eguneratu beharko dira:** Eskuragarri dauden datuak hartu beharko dira, eta emandako erantzunak zein gidalerroak ere jasoko dira. Horrez gain, protokoloaren hurrengo urratsa ere beteko dugu..

## Jakinarazpena eta koordinazioa egitea:

Egoera gidalerro hezigarri baten bidez konpontzen ez bada, eta esku-hartze handiagoa behar bada, berehala jakinaraziko diegu agintari eskudunei. Besteak beste, honako hauek dira agintari horiek: gizarte-zerbitzuak, adingabeen fiskaltza, polizia... Eta protokoloa zein jakinarazitako urratsak beteko ditugu; horrez gain, zer edo zer behar badute, gure laguntza eskainiko diegu.

Administrazio publiko bati zerbitzua ematen badiogu, arloko arduradunari protokoloaren berri emango diogu.

Gainera, kontuan hartu behar dugu adingabearen gizarte- eta hezkuntza-esparrua, baita esku-hartzean parte hartzen duten eragileak ere. Eragileekin komunikazio arina eduki behar dugu; horrez gain, informazioa jasotzen eta konpontzen ere lagundu behar dugu, eta hezkuntzako esku-hartzean eragina izan dezaketen alderdiei buruzko informazioa ere eman behar diegu.

Betetzen dugun urrats bakoitza jaso egingo dugu (Intzidentzien Erregistroan). Edonola ere, kontuan hartu behar dugu esku artean dugun informazioa isilpekoa eta konfidentziala dela, eta kasua kudeatzen ari diren pertsonek baino ezin dutela eskuratu.

**Diziplina-araubidea:** Pertsona guztiek ezagutu beharko dute jokabide-kodea, dagokion diziplina-araubidea erreferentziatzat hartuta (erakunde erantzuleak agindu behar ditu diziplinazko neurri legitimoak eta gertakariekiko proportzionalak, indarrean dagoen araudi aplikagarriaren, indarrean dauden hitzarmen kolektiboen eta ezarritako barne-prozeduren arabera).

Lan-lotura duten pertsonei eragiten badie, babes-ordezkariak Giza Baliabideen arloari jakinaraziko dio, lan-arlo aplikagarria behar bezala aplikatzeko.

Langile boluntarioei, babes-ordezkariari eta erakundearen zuzendaritzari eragiten badie, hartu behar diren neurriak baloratuko dituzte, besteak beste, erakundetik kanporatzea komeni den.

Praktikak egiten ari diren, prestatzen ari diren, edota laguntzaile moduan ari diren langileei eragiten badie, pertsona hori kide den erakundearekin duen harremana eteteko edo inplikatutako pertsonarekin soilik harremana eteteko aukera baloratuko da, baldin eta erakunde horrek kultura etikoarekiko benetako konpromisoa erakusten badu, eta egoera horiek prebenitzeko bitarteko posible guztiak jarri dituela frogatzea lortzen badu (prestakuntza-plana, aurrekarien ziurtagiri negatiboa eskatzea...).

Beste adingabe bati eragiten baldin badio, ordezkariak aztertuko du zer neurri komeni den hartzea (adibidez, adingabea proiektu horretatik ateratzea).

Era berean, diziplina-neurriak hartu ahalko dira egoera horren berri zutenen aurka, jakinarazi ez badute.

**Gizarte zerbitzuekin batzartzea (hala dagokionean):** Gizarte-zerbitzuei kasuaren berri eman ondoren, gure laguntza eskainiko diegu, beharrezkoa izanez gero. Hala dagokionean, haiekiko koordinazioa ezarriko dugu, gure esku-hartzearen ondorioz eskaini ahal ditugun hezkuntza-estrategien berri emateko. Kasu horietan, komunikazioa arina izango da, kasu bakoitzaren ezaugarri bereziei erreparatuta. Edonola ere, Gizarte Zerbitzuek adierazitako jarraibideak beteko ditugu.

**Familiarekin batzartzea (hala dagokionean):** Era berean, eta, ahal den neurrian, familiarekin harremanetan egongo gara, eta eskaini ditzakegun hezkuntza-estrategiak eskainiko ditugu, gainerako profesionalak edo zerbitzuak egiten ari diren lana kaltetu edo oztopatu gabe, eta, beste behin ere, behar gaituztenerako prest egongo gara.

**Erregistroa eguneratzea:** Intzidentzien erregistroa eguneratuko dugu, beste urrats bat ematen den bakoitzean. Komeni da informazio osoa ordenatzea eta argitzea, baita objektibotasunez idatzita egotea ere. Datuen konfidentzialtasuna bermatu behar da.

## Kasuaren jarraipena

Kasua amaitutzat jo arren, haren jarraipena egin beharko da aisialdi hezigarriko espazioetan egiten ari garen esku-hartze hezigarri horretan. Horretarako, funtsezkoa izango da adingabearen ongizate emozionala bermatzea gure espazio hezigarrietan, ingurune seguruak berriro ezartzea (kaltetuak izan baziren) eta erregistroa eguneratzen jarraitzea.

Protokoloa aktibatzeko prozesuan zeharka, biktimari lagun egin beharko diogu, kasuaren jarraipena egin beharko dugu, eta datuak gure erregistroan eguneratu beharko ditugu.

***Protokolo arruntak 48 ordu igaro gabe aktibatu behar dira.***



# 7. Protokoloaren ebaluazioa eta jarraipena

Protokoloaren ezarpenaren jarraipena eta ebaluazioa kualitatiboak izango dira. Aisialdi hezigarriko erakundeak direnean, haiek ezarriko dute monitorizazio-sistema, errealitatearen eta baliabideen arabera.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du haren ezarpen praktikoa ebaluatzeko eta aldian-aldian eguneratzeko, erakundeen eta haur eta nerabeen errealitate eta behar berrien arabera. Horretarako, lehen lau urteen ondoren, ebaluazio bat egingo da, eta, bertan, protokoloaren hedapena, langileen eta materialen eskura jarritako bitartekoak, sentsibilizazio-bitartekoak, detektatutako edota artatutako kasuen bitartekoak, eta protokoloaren beste funtsezko elementu batzuk baloratuko dira.

Ebaluazio hori egin ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak informazio-bilketa egingo du, Bizkaian aisialdi hezigarrian jarduten duten erakundeen bitartez. Balorazio horren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak hobekuntza-proposamenak egingo ditu, eta egokitu ala eguneratu behar den zehaztuko du.



# 8. Komunikazioa eta hedapena

Protokolo hau Bizkaiko aisialdi hezigarrian jarduten duten pertsona guztiei azaldu behar zaie, gizartearekin partekatu behar da, eta langile horiek ezagutu eta onartu behar dute. Hori dela eta, bete behar diren ekintza batzuk jaso ditugu:

## Bizkaiko Foru Aldundia:

- ✓ Protokoloak Foru Aldundiaren webgunean eskuragarri egon behar du.
- ✓ Salaketak egiteko kanal bat eskainiko du, haurren aurkako indarkeria mota baten berri emateko, pertsona batek horren berri jasotzen badu, edo horren biktima izan baldin bada.
- ✓ Komunikazio-kanpaina egingo du, eta bizkaitar herritarrei egoeraren berri emango die, bereziki, aisialdi hezigarriko erakundeei, familiei eta haurrei zein nerabeei.
- ✓ Protokolo hau Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen aisialdi hezigarriko jarduera guztietan aplikatu behar da.

- ✓ Prestakuntzako jarduerak egingo dira, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen eta garatzen dituen aisialdi hezigarriko prestakuntza-jardueretan.
- ✓ Prestakuntzako jarduerak sustatzea eta Bizkaiko aisialdi hezigarrietako eragileei eta erakundeei eskaintzea.
